anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko ekainaren 16a
15. urtea
681. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

## Kultura



Durangaldeko bost musika taldek 70eko hamarkadako taldeen bertsioen jaialdia eskainiko dute, bihar, 21:00etan, Durangoko Plateruenean. > 11



# “Oso argi dut zelan jokatu”

Joseba Etxeberriak Athleticen aterpetik kanporako lehenengo esperientzia izango du Amorebietako aulkian. Urtebeteko eszedentziagaz dator. Ideiak garbi dituela eta erronkari aurre egiteko gogotsu dagoela dio. > 19

## Inkesta baten arabera, zornotzarren erdiek jaiegun kopurua laburtuko lukete

Zornotzarrik gehienak (%75) Karmen jaiak uztailaren 15ean hasi eta 27an amaitzeagaz ados daude, baina inkestatuen erdiek jaiegunak murriztuko lituzkete, modu batera edo bestera: edo astegunetako ekitaldiak kenduz (%24,5) edo jaiak laburtuz (%25). Jaien inguruan Gizaker enpresak egindako inkesta baten emaitzak dira. 1.500 zornotzarren iritziak jaso dituzte. > 2

*“Kostaldea eta itsasoa zaintzearen garrantziaz hezi behar da, eta kontsumo ohituretan eragin”*



Maitane Grande | Itsas Zientzietan doktorea > 10

CEPA HHI DURANGO ERMUA-ZORNOTZA
DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala
Laubideta kalea, 6
DURANGO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
IRAKASKUNTZA ARAUTUA
• Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
• Hasierako irakaskuntzak.
• DBHko graduatua.
IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA
• Unibertsitaterako sarbide probak.
• Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
• Informatika ikastaroak.
• Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net
MATRIKULA-EPEA: ekainaren 15etik 30era
Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/ 16:00-19:00 · Ostiraletan: 09:00-13:00

**Otxandio > 3**
Euskararen erabilera sustatzeko, “talde sendoa” sortu gura dute

**Durango > 5**
Hautagai ugari aurkeztu dira Fashion Gauean modelo izateko

**Iurreta > 7**
Enpresa proiektu berriak martxan jartzeko lehiaketa abian da

**Izurtza > 9**
Etxebizitzak egiteko eskaintzara ez da sustatzailerik aurkeztu

Herririk herri

# Inkesta baten arabera, zornotzarren erdiek jaietako egun kopurua laburtuko lukete

## Era berean, gehienak Karmen jaiak uztailaren 15ean hasi eta 27an amaitzearen aldekoak dira



Txupinazo eguna ekintzarik baloratuenetakoa eta jendetsuenetakoa da inkestaren arabera.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano

Karmen jaien inguruan Gizaker enpresak egindako inkestaren emaitzak jakinarazi dituzte asteon. 1.500 zornotzarren iritziak jaso dituzte.

Jaien luzeraren ingurukoa izan da galdera bat. Inkestatuen gehiengo zabal bat (%75) ados dago jaiak uztailaren 15ean hasi eta 27an amaitzeagaz. Baina inkestatuen erdiek jaiegunak murriztuko lituzkete, modu batera edo bestera: edo astegunetako ekitaldiak kenduz (%24,5) edo jaiak laburtuz (%25,5). Batzuek Santanatxu eguna kenduko lukete (%14,2), beste batzuek Karmen eguna (%6,3), eta gutxi batzuek bata zein bestea (%5). Beraz, ez dago adostasun garbirik jaien luzera zelan moldatu zehazterako orduan.

Jaiguneen kokapenari dagokionez, (Zelaieta, Herriko Plaza, Zubiondo eta txosnak) herritarren %76k uste dute kokapen ona dutela. Txosnei buruz galdetuta, %61,5 ados dago gaur egungo kokapenagaz. Konforme ez daudenen artean, gehienek Nafarroako landetara (kamioien sasoi bateko aparkalekua) eramango lituzkete.

Jaietako ekintzarik baloratuenak marmitako txapelketa (8,4), txupinazoa (8,02) eta danborrada (7,6) dira. Kontzertuekin batera, ekintza horiexek dira, hain zuzen, jenderik gehien batzen dutenak.

### Jaiei puntuazio altua

Inkestak erakusten duenez, herritarrak, oro har, gustura daude jaiekin, eta 7ko puntuazioa eman diete. "Datu honek jaiak antolatzen ibiltzen direnen lan handia berresten du", adierazi du Luciano Martinez zinegotziak eta Ametx erakundeko presidenteak asteon emandako prentsaurrekoan. Jaietako segurtasunak (7,8) eta garbitasunak (8,04) ere puntuazio altua jaso dute.

### Kolektiboekin egindakoa

Azterketan, herriko kolektiboekin egindako batzarretan esandakoak ere jaso dituzte. Ostalariak eta txosnetako kideak batu ditu batzar batek, eta gazteak zein gurasoen elkarteak beste batek. Horiek parte-hartze zabala izan dutela adierazi dute. Aldiz, kirol eta kultur elkarteekin egin gura zuten batzarra bertan behera utzi zuten, ez zelako inor agertu.

Txosteneko emaitzak jai batzordearen esku jarri dituzte, hausnartu dezaten.

**INKESTAKO HAINBAT DATU**

**Zornotzako jaietara joaten zara normalean?**
· Bai: %89
· Ez: %11

**Zelan baloratzen dituzu jaiak 1etik 10era?**
· 7ko balorazioa

**Zelan baloratzen dituzu ekintzak?**
· Marmitako txapelketa: 8,4
· Txupinazoa: 8,02
· Danborrada: 7,68

**Ondoko herrietako jaiak baino hobeak ala txarragoak dira?**
· Berdinak: %42
· Hobeak: %29
· Txarragoak: %8

**Baloratu jaietako segurtasuna 1etik 10era.**
· 7,8ko balorazioa

**Baloratu jaietako garbitasuna 1etik 10era.**
· 8,04ko balorazioa.

# Berrojalbizen kartelak iragarriko ditu karmenak

## Urdin kolorea nabarmentzen da kartel osoan

Lehenengo begiratuan "jai sentsazioa" emango duen kartela diseinatzen saiatu da Mikel Berrojalbiz zornotzarra. Askotariko ekintzak islatzen dituen hainbat pertsonaia agertzen dira. Esaterako, erdi-erdian emakume bat mexikarrez jantzita ikusi daiteke, aurten Santanatxu eguna herrialde horri bideratutakoa izango delako. Lehenengo planoan ageri den danborradako zuzendariak zuzentzen ditu guztiak, diseinu orokorrari osotasun bat emanez. Urdina nabarmentzen da kartel osoan, Zornotzako jaietako ohiko kolorea.

Berrojalbizek (Zornotza, 1973) pintura eta marrazketa akademia bat du Zornotzan. Iaz, lehiaketara aurkeztu eta irabazlearengandik gertu geratu zen. Horregatik, Jai Batzordeak aurten berari enkargatu dio kartelaren diseinua.




anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko ekainaren 16a
14. urtea - 681. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 11.500 ale

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
PEFC/14-38-00225
www.pefc.es

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# “Miamira etortzeko aukerari ezin nion ihes egiten utzi”

## Miamiko Le Basque jatetxeko ardura hartu du Mikel Goikolea otxandiarrak


Maite duen herria atzean uzteko minagaz, baina etapa berria hasteko ilusioz dago Goikolea. Ainara Petite

**OTXANDIO** Markel Onaindia

**Miamin (Florida, AEB) dabil Mikel Goikolea Gonzalez de Audicana otxandiarra, hango jatetxe ospetsu bateko ardura hartuta. 21 urte baino ez zituela, hiru Michelin izar dituen Azurmendi jatetxean hasi zen lanean Eneko Atxaren aginduetara –datorren astean Atxagaz elkarrizketa argitaratuko du ANBOTOk, zabalduko duen jatetxe berriaren harira–. Bertan, Bistró Prêt à Porter espazioko sukaldariburu ibili da. Orain, 28 urtegaz eta esperientziaren zakua ondo beteta, Miamirako jauzia egin du, beste abentura bati ekitera. Handik, telefonoz erantzun die galderei, plater eta menu berriak asmatzen dabilen sasoian.**

**Miamin sukaldaritzako etapa berri bat hasi duzu. Zertan zaude lanean?**
Le Basque luxuzko catering enpresan nago lanean, sukaldeko aholkularitza egiten. Platerak diseinatu, menuak osatu, lan-taldea antolatu... Gainera, bitartean, datorren urtean zabaltzeko asmoa dugun jatetxean lanean gabiltza. Ez da erraza beste herrialde batera joan eta egun batetik bestera gauzak egitea; bertako produktuak ondo ezagutu behar dira, baita bertako ohitura, kultura eta jendea ere.

**Ilusioa duzu?**
Egia esan, oso aukera ona suertatu zitzaidan Miamira lanera etortzeko, eta ezin nion ihes egiten utzi. Nik uste sukaldari guztion ilusioa dela jatetxe baten ardura hartzea. Ilusioz eta gogotsu nago, nahiz eta jakin ez dela erraza izango. Nire bizitzako beste etapa bat da, eta aurre egingo diot.

**Le Basque jatetxearen ardura hartuta, ilusio bat beteko duzula diozu, baina erabakia hartzeak alde gaitza ere edukiko zuela suposatzen dut...**
Hona etortzeko erabakia oso gogorra egin zitzaidan, ikaragarri maite ditudan Otxandio eta Euskal Herria atzean utzi behar izan nituelako. Miamira urtarrilean heldu nintzen, eta denbora zehatz baterako ez bada ere, nahiko argi daukat urte batzuk barru etxera bueltatuko naizela.

**Azurmendi jatetxeko esperientzia ez du edukitzen edozeinek, eta hain gazte izanda, oraindik eta gutxiago.**
Oso gazte hasi nintzen sukaldaritza munduan. 19 urtegaz irten nintzen Gamarrako (Araba) sukaldaritza eskolatik, eta Las Rejas jatetxean (Cuenca, Espainia) egin nituen lehen praktikak, Manolo de la Osa maisu nuela. Bertan gauza asko ikasi nituen. Etapa hori amaituta, urte eta erdira, Eneko Atxagaz hasi nintzen Azurmendin, 21 urte nituela. Eneko beti izan da eta beti izango da nire erreferente nagusia. Berari zor diot dakidan guztia. Berak erakutsi dit kozinatzen, diziplinatua izaten, sukalde bat zuzentzen... Horregatik, asko miresten dut.

# Euskararen kale erabilera sustatzeko “talde sendoa” sortu gura dute

## Gaur Kike Amonarrizek eskainiko duen hitzaldia pizgarria izatea itxaroten dute


Korrikaren harira antolatutako sentsibilizazio taldeak antolatu du gaurko ekimena.

**OTXANDIO** J.D.

Korrikaren harira egindako bideoa aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, kultur etxean. Baina hitzordu horrek helburu sakonago bat ere badauka. Herrian euskararen kale erabileraren kontzientziazioan jardungo duen lan taldea sortzeko abiapuntu izatea ere gura dute.

Izan ere, euskararen inguruan herrian egindako azterketa batek kaleko erabilera jaitsi egin dela azaleratu zuen. Horregatik, aurten Korrika Otxandiotik abiatuko zela jakin zutenean, horren harira sortutako lan talde batek euskararen sentsibilizazioan jarduteko ardura hartu zuen. Korrikaren oihartzuna lorbide moduan erabili gura zuten. Sentsibilizazio talde horrek antolatu du gaurko ekimena eta “jendea batzea eta talde sendo bat osatzea” du helburu, taldeko Oskar Bustok azaldu duenez. Gaur egungoa baino talde zabalagoa behar dute. Korrikako bideoa aurkeztu ostean Kike Amonarrizek eskainiko duen hitzaldiak pizgarri moduan eragingo duen esperantza dute.

**Aguraineko ekimena buruan**
Herrian euskararen erabilera sustatzeko modu bat Aguraineko esperientzia izan daiteke. Aukera bat da. Iazko azaroan, lau egunez, euskara esparru guztietara eraman zuten *Agurain, 75 ordu euskaraz* ekimenaren bidez. Euskaraz bizitzeko aukera naturaltasunez egitea bilatzen zuen ekimenak.

**Albisteak** eta **agenda**, bizkor eta eskura.
**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
**Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.
**Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.
**DESKARGATU DOAN !**

anboto.org MUGIKORREAN
Available on the App Store
Google Play

TRAÑA-MATIENAN TXOKO BATEKO BAZKIDE IZAN GURA ZENUKE?
ORAINTXE DUZU AUKERA!
LANOSTE TXOKOAN HERRIAN BERTAN
Xehetasunak behar izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara.
Tel.: 625 700 486
ABADIÑO

# Euskal baserrien sorreraren eta garapenaren eredu da Besoitaormaetxea baserria

2014az geroztik indusketa arkeologikoak egiten ibili dira Besoitaormaetxean, Berrizen



Astelehenean egin zuten arkeologia lanen prentsaurrekoa.

**BERRIZ** M. Zuazubiskar

2014an Berrizko Besoitaormaetxea baserria eraberritzen hasi zirenetik indusketa arkeologikoak egiten ibili dira bertan. Eta aste honetan jakitera eman dutenez, Besoitaormaetxea eraikina lehenengoz zientifikoki datatu den euskal baserriaren aitzindaria da.

Teresa Campos arkeologoak astelehenekoprentsaurrekoan adierazi zuenez, Besoitaormaetxea baserrian habe-zuloak, siloaren zuloa, etxolaren zorua izan zenaren froga, harrizko baserria erakitzen hasi zinereko zimentazioa eta korta, eta dolareen aztarnak aurkitu dituzte. "Aztarna hauei guztiei esker, euskal baserrien eboluzioa zein izan den eta baserriek zein itxura izan duten ikusi ahal izan dugu", adierazi zuen Camposek.

Horrez gain, Orland Isoird alkateak, Nerea Mujika Gerediagako kideak eta Lorea Bilbao Bizkaiko Euskara eta Kultura diputatuak Besoitaetxebarria baserriaren ikerkuntzan egindako lana azpimarratu zuten.

Bestalde, elkarlanean egindako ikerketa pozik hartu dutela nabarmendu dute Besoitaormaetxea baserrian jaiotako Fuldain Eizaga-Etxebarria ahizpek. "Sorpresa itzela izan da gure etxea euskal baserrien sorreraren eta garapenaren eredu dela jakitea", adierazi zuen Inmaculada Fuldainek.

> Besoitaormaetxea lehenengoz zientifikoki datatu den euskal baserrien aitzindaria da

## Lau eta hamabi urte arteko dantzarien jaialdia, Zelaietan

**ABADIÑO** I. E.

Eskualdeko bederatzi dantza taldetan dabiltzan 250 ume inguru elkartuko dira domekan, Abadiñoko umeen dantzari egunean. Talde Batuak abadiñarrak antolatu du dantza jaialdiaren aurtengo edizioa, eta Zelaieta auzoan ospatuko dute jaialdia. Udabarri, Tronperri, Iluntze, Andra Mari, Besaide, Andasto, San Lorenzo, Iremiñe eta Talde Batuak taldeetan dihardutenlau eta hamabi urte arteko dantzariek hartuko dute parte jaialdian.

Goizean kalejiran ibiliko dira dantzariak Abadiñon zehar, eta dantza emanaldiak eskainiko dituzte. Herriko familiekin bazkaldu ondoren, Ferialekuan eskainiko dute saio nagusia, arratsaldean.

## Jon Peli Larruskain gogoratzeko elkartuko dira

**ABADIÑO** I. E.

2016ko martxoan Palentzian gertaturiko auto istripu batean hil zen Jon Peli Larruskain *Txupa* abadiñarraren bigarren omenaldi eguna antolatu dute biharko haren lagunek. Egun osoko eta adin guztietarako egitaraua antolatu dute, besteak beste, jai batzordeko kide, zinegotzi, eta tabernari izan zen Larruskain gogoratu eta omentzeko. Traña plazatik 12:00etan botako duten txupinazoagaz abiatuko dute egitaraua, eta 00:00etan, su artifizialekin emango diote amaiera. Tartean, umeentzako jolasak, trikipoteoa, bazkari herrikoia, hainbat produkturen zotz egitea eta kontzertuak izango dira Traña-Matienan.

# Martitzeneko San Antonio egunaren ostean, 'errepetizino eguna' da etzi

Leioako Abesbatza Kantari taldea arituko da domekako meza nagusian



Azokak jende asko erakarri zuen martitzenean. Victor Uriarte

**ABADIÑO** M. Z/I. E.

Ohiturari eutsiz, San Antonio Eguna ospatu zuten martitzenean, Urkiolan. San Antonio eguneko tradizioak eta azokak —50 abelburu inguru eta nekazarien ortuari eta produktuak bildu zituen—, Durangaldeko zein Bizkaia osoko bisitariak erakarri zituzten. Goizean, trikitilari eta bertsolarien saioak izan ziren, eta bost meza egon ziren egunean zehar.

### Etzi, Urkiolara berriro

Domekan, *Errepetizino eguna* ospatzera joango dira hainbat lagun Urkiolara 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan, mezak izango dira. 12:00etako meza nagusian, Leioako Abesbatza Kantari taldeak emanaldia eskainiko du; 13:00etan, harrijasotzaile eta aizkolarien saioa izango da ikusgai, eta ordu horretan amaituko da Txaraka Memoriala mendi lasterketa ere.



# Modelo izateko hautagai ugari Dendak Bairen Fashion Gauerako

Merkatari elkarteak desfilearen bigarren edizioa egingo du irailaren 29an




Modelo izatera animatu zirenek ilara egin zuten atzo.

**DURANGO** Markel Onaindia

Dendak Bai elkarteak Fashion Gauaren bigarren edizioa egingo du irailaren 29an, herriko merkatarien produktuak herritarren aurrean erakusteko. Desfilean herritarrak modelo izan ahalko dira, eta horretarako, castingera deitu zuten atzoko egunerako. Bada, modelo izateko hautagai ugari agertu ziren Udal Euskaltegian egokitu zuten casting eremura; 17:00etan zen ordua, eta jendeak ilara egin zuen sartu ahal izateko. Adin guztietako emakume eta gizonak eskatu zituzten antolatzaileek.

Beraz, herritarrak modelo izan ahalko dira, egun batez bada ere. Euren ekarpenagaz, Durangoko dendek udazkenerako eta negurako dituzten produk-

Produktuak promozionatuko dituzte, herriko komertzioari bultzada bat emanez

tuak promozionatuko dituzte, herriko komertzioari bultzada bat emanez.

Iaz egin zuten lehenengoz Fashion Gaua. 70 bat herritar aurkeztu ziren castingera, eta 27 aukeratu zituzten Andra Mariko elizpean ipinitako pasarelara igotzeko.

## Rocio jaia ospatuko dute asteburuan

**DURANGO** M.O.

Durangoko andaluziarren kultur elkarteak antolatuta, Rocio jaia ospatuko dute asteburuan. Elkarteak duen egoitzaren bueltan izango dira ekitaldirik gehienak, bihar gauez hasi eta domeka arratsaldera arte. Hain zuzen, etzi egingo dute ekitaldi garrantzitsuetako bat: Rociero eta Rociera nagusien hautaketa.

Bihar, 22:00etan, berbena musikala egongo da, eta gauerdian amabirjina aterako dute, erromeriaren atsedenaldian. Domekan Rocio estiloko meza eskainiko dute Jesuiten elizan, 10:30ean. Eguerdirako, runbak, sevillanak eta orotariko dantzak iragarri dituzte. 18:00etan amaituko da festa, amabirjina sartu ostean.

## Bertan behera geratutako bilkura egitea eskatu dute

**DURANGO** M.O.

Feministek Garateren auzia salatzeko egindako protesta -kantu baten ostean, maiatzeko osoko bilkura bertan behera utzi zuen alkateak. Hainbat gai landu barik geratu ziren, eta horiek hurrengo ekaineko osoko bilkuran baino lehen eztabaidatzea gura dute EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak. Horregatik, ezohiko bilkura bat egiteko eskaera erregistratu dute. “Onartezina deritzogu alkateak bertan behera utzi ostean beste deialdirik egin ez izana”, esan dute prentsara bidalitako mezuan.

DRTren urtemugako hitzarmena, martxanterak omentzeko ideia eta Gorka Fraile presoaren inguruko mozioa ziren, besteak beste, landu barik geratu zirenak. “Herritarrek ez dute zertan jasan alkate baten erabakiak sortu dituen kalteak”, salatu dute oharrean.

Bestalde, Parte Hartze eta Garapen Jasangarria batzordeko eta Ogasun batzordeko presidenteen agerraldia eskatu dute, hurrengo gaiez informatu dezaten, “aurrerapenik ez” dagoela-eta: parte-hartzearen ordenantza, zabor bilketa eta kale garbiketaren kontratua, merkatu plazaren dinamizazioa eta Ondasun Higiezinen Zerga.

## Luhartzegaz ospatuko dituzte Muruetatorreko 10. jaiak

**DURANGO** M.O.

Asteburu hau jai-giroz beteta-koa izango da Muruetatorreko bizilagunentzat, auzoko jaiak ospatuko dituzte eta. Hamargarren edizioa denez, leku handiago bat hautatu eta jaia Landako Gunean egitea erabaki dute auzo elkartekoek.

Biharko egunerako V. Paella Txapelketa iragarri dute, eta gauez, Luhartzen erromeriagaz jarraituko dute, eguna dantza giroan amaitzeko. 23:00etan, atsedenaldian, kulero eta galtzontzillo lasterketa egingo dute.

10. edizioa denez, leku handiago bat hautatu eta jaia Landako Gunean egitea erabaki dute

Domekan, ostera, merkatu txiki eta herritarra ipiniko dute. Gainera, umeentzako jolasak, puzgarriak, herri kirolak eta txistorra-jana egongo dira asteburuan zehar.

### JAEDi laguntza

Antolatzaileek esan dutenez, JAED elkarteari lagundu gura diote, eta, horregatik, elikagai iraunkorrak eta produktu higienikoak eramatea eskatu diete partaideei.

PRESTATU ENERGIAREN PROFESIONALA IZATEKO!

**Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa**

Goi mailako Lanbide Heziketa honetan eraikinetako klimatizazio instalazioen diseinu, muntaia eta mantenuak egiten dira. Instalakuntza hauetan eguzki energia termikozko instalazioak eta beste energia berriztagarriak nola integratzen diren ikasten da.

Industrian zein eraikuntzetan energia eraginkortasuna ebaluatzeko metodoak erabiliz, hurrengo gaiak aztertzen dira: argiztapena, hotz eta bero instalazioak, ur instalazioak, energia berriztagarriak eta ziurtapen energetikoak.

Hau guztia modu praktiko eta talde lanetan oinarritutako erronka bidezko metodologia kooperatiboak erabiliz. Baita DUAL sisteman ikasteko aukerarekin ere.

Ikasketa hauek bukatzean IMT, IA eta GF2 Eusko Jaurlaritzako Industria karnetak eskuratzen dira.



**Mikel Urreizti** Mutriku, 1993

Beroa Sortzeko Instalazioak erdi mailako Lanbide Heziketa egin ondoren, Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako Lanbide Heziketa egin du. SANTILLAN enpresan egon da DUAL-a egiten eta bertan egin diote lan kontratua.



**Iñigo Agirre** Ondarroa, 1974

Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasi ondoren, gaur egun *Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe* programarekin Mozanbikera doa energia berriztagarrietako ezagutzak zabaltzera eta bertan laguntzera.




**Alain Aranaz** Nabarniz, 1990

Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasi eta ENERTEK energia berriztagarrien enpresa bat sortu berri du, bertan biomasa, geometria eta energia berriztagarrien instalazioak egiten dituzte.

**ERDI MAILA**
· Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa).
· Mantenimendu elektromekanikoa.

**GOI MAILA**
· Administrazioa eta finantzak.
· Automatizazioa eta robotika insdustriala.
· Mekatronika industriala.
· Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.
· Ekoizpen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian.
· Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa.
· Web aplikazioen garapena (2.maila).

lea artibai ikastetxea
Markina-Xemein
94 616 90 02
info@leartik.com
www.leartik.com


Najib Oulad El-Maknassi imana aurkezpena egiten.


Jan aurretik errezatu egin zuten musulmanek.

# "Gure kultura elorriarrekin partekatu gura genuen, hemen oso pozik gaude-eta"

Najib Oulad El-Maknassi imanak Ramadana zer den azaldu zuen *Ramadanak batzen gaitu* ekitaldian

**ELORRIO** Maialen Zuazubiskar
Ekainaren 25ean Ramadana, musulmanen barauraldia, amaituko den arren, aurreko astelehenean barauraldia jaialdi zabal bategaz eten zuten Elorrion.

Musulmanek ilargi-egutegiko bederatzigarren hilabetean, egunero, eguzkia irteten denetik sartzen den arte ez dute ez jaten, ez edaten, ezta harreman intimorik edukitzen ere. "Ramadana egiten dugun hilabetea berezia izaten da musulmanontzat. Ramadana Jainkoari eskertza emateko modu bat baita, gugaz egoteagatik eta guri laguntzeagatik", adierazi zuen Najib Oulad El-Maknassi Elorrioko imanak.

Elorrioko plazako frontoian egindako *Ramadanak batzen gaitu* ekitaldia jaialdi zabal bat izan zen. Najib Ouladek jakitera eman zuenez, elorriarrei euren bizimodua ezagutzera emateko helburuagaz antolatu zuten ekitaldia, eta, horregatik, herriko hainbat elkarte gonbidatu zituzten bertan parte hartzera. "Gure kultura elorriarrekin partekatu gura genuen, herri honetan oso pozik gaude-eta", esan zuen Ouladek.

Ekitaldiaren hasieran, Ramadana zer zen azaldu zuen Elorrioko imanak; ondoren, musulmanek errezatu egin zuten, eta, azkenik, denek elkarregaz afaldu zuten. Gainera, jaialdira bertaratu zirenek musulmanen abesti eta bertsoez gozatzeko aukera izan zuten.

### Kultur aniztasuna bultzatuz

Idoia Buruaga alkatea ekitaldian egon zen, eta horrelako ekintzek herria aberastu egiten dutela adierazi zuen. "Gainera, ekintza hauei esker, udaletik bultzatzen ari garen parekidetasunak eta kultur aniztasunak indarra hartzen dute", bukatu zuen Buruagak.

## Antzinako ogibideen azoka, San Agustinen

**ELORRIO** M.Z.
Olazar auzo elkarteak urte birik behin antolatzen duen Antzinako Ogibideen Azokak Erdi Aroko arropez jantziko du Elorrioko San Agustin auzoa. Errementariak, panpin-egileak, harginak... denetarik izango da zapatuan, 11:00etan hasiko den azokan.

Horrez gainera, goizean esgriman eta arku-tiroan aritzeko aukera egongo da; Erdi Aroko kanpamentua eta txerri erretzea ere egongo dira.

> Goizeko hamaiketan hasiko da VIII. Antzinako Ogibideen Azoka, Elorrioko San Agustin auzoan

Arratsaldean, 17:00etan, Mamarru taldeak *Fuero de los labradores del Duranguesado* antzezlana antzeztuko du. Eta, 18:00etan, hegazti erakustaldiagaz emango diote amaiera San Agustingo Antzinako Ogibideen Azokari.

## Indarkeria matxista kasua salatzeko, kontzentrazioa eta adierazpena

Udalbatzarrak gertaera gaitzetsi du aho batez onartu duten adierazpenagaz



Joan zen barikuan Mañariko plazan egindako kontzentrazioa.

**MAÑARIA** J. D.
Orain asteburu bi indarkeria matxista kasu bat jazo zen Mañarian. Erasotzailea atxilotu egin zuten. Udaleko iturriek azaldu dutenez, emakumeak salaketa jarri zuen. Gertaera hori salatzeko, kontzentrazioa egin zuten udaletxe pareko plazan joan zen barikuan. 60 bat herritar batu ziren *Indarkeria matxistarik ez! Ez Mañarian, ez inon!* leloa irakurri zitekeen pankartaren atzean. Udalbatzarra osatzen duten EH Bilduko zein EAJko hainbat zinegotzi zeuden, tartean Endika Jaio alkatea bera ere.

### Adierazpen instituzionala

Premiazko udalbatzar batean, gertaera salatzen duen adierazpen instituzionala aho batez onartu dute udalean. Indarkeria kasuaren aurrean "gaitzespena eta arbuioa" adierazi dute, eta erasoa jasan duen emakumeari "elkartasuna" helarazi diote.

Gizarte Zerbitzuak erasoa jasandakoaren beharretara jarri zituztela adierazi du Endika Jaio alkateak. Eta erasoren bat sentitzen duen edonor kasua salatzera animatu du, "hori baita lehenengo pausoa".

## Plan orokorra gairik gai azalduko dute martitzenean

**MAÑARIA** J. D.
Udalak Hiria Antolatzeko Plan Orokor (HAPO) berriaren lehenengo zirriborroa egin du. Udalbatzarrean hasiera onarpena eman aurretik, herritarren aurrean aurkeztuko dute datorren martitzenean. Lantegi tematikoak antolatu dituzte. Hau da, hiru batzar antolatu dituzte eta bakoitzean gai bat landuko dute. Denak udaletxean izango dira.

Lehenengo batzarra 15:30ean hasiko da eta jarduera ekonomikoen zein lurzoru industrialaren inguruan jardungo dute. 17:00etako batzarra natura ondarearen eta urbanizatu ezin daitekeen lurzoruaren gainekoa da. 18:30ean hasiko den azken batzarrean hiri-lurzorua (etxebizitza eremuak, aparkalekuak, bideak…) izango dute berbagai. Lantegi hauen bidez, proposamenaren gaineko hausnarketa egin gura dute denen artean, eztabaida bultzatuz, hurrengo hamarkadetako Mañaria zehazten lagunduko dien Plana osatzeko.

# Zabaldu dute enpresa proiektu berriak sustatzeko lehiaketa

IX. Enpresa-proiektuen Lehiaketako irabazleak 6.000 euro lortuko ditu


Urki paper-dendak irabazi zuen enpresa-proiektuen lehiaketa, 2015ean.

IURRETA Aitziber Basauri

Iurretako IX. enpresa proiektuen lehiaketa jarri du martxan udalak. Herri-erdigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatu gura ditu udalak lehiaketa honen bitartez, "eta norberaren enpresa edo denda sortuz lanean hastea erabaki dutenei bidea erraztu". Ideia lehiaketa honen helburua da herrigunean "espiritu ekintzailea" sustatzea. Proiektuek herriguneko baldintzekin bat datorren enpresa-errealitatea ekarriko duen ideia izan behar dute oinarri, udal arduradunek azaldu dutenez.

Irabazleak 6.000 euro jasoko ditu eskudirutan. Obra eta jarduera lizentziak ematean laguntzaren %20 jasoko du, eta proiektua gauzatzeko establezimendua irekitzeko lizentzia ematean, %50. Gainerako %30a urtebeteko epean emango zaio, irekiera-lizentzia ematen zaionetik aurrera zenbatzen hasita.

Iaz hutsik geratu zen lehiaketa. Ez zen inor aurkeztu. 2015eko lehiaketa, berriz, Urki paper dendak irabazi zuen.

### Herrigunera mugatuta

Proiektuek udalerriko errealitatea izan behar dute gogoan, eta herriko honako kale hauetara mugatuko dira: Bidebarrieta, Bixente Kapanaga, Dantzari, Fray Juan Askondo, Maspe, Padureta, Zubiaurre eta Uralde kaleetara eta Amilburu Musikarien plazara. Enpresa sortu gura duten guztiek hartu ahalko dute parte, bai pertsona fisikoek, bai juridikoek (enpresa ertain eta txikiek), baldin eta horien enpresa-proiektua Iurretako herrigunean kokatzea aurreikusi bada.

Lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea zabalik dago. Ekainaren 1etik urriaren 31ra artean dago aukera proiektuak aurkezteko.

# Zinegotzi kargua utziko du Arizmendiarrietak

Uztailean dimitituko du Arizmendiarrietak, eta Jasone Urizarrek hartuko du zinegotzi kargua

ZALDIBAR Itsaso Esteban

EH Bilduko udal talde osoak babestuta eman zuen Aitor Arizmendiarrietak zinegotzi kargua uzteko bere erabakiaren berri. Uztaileko osoko bilkuran dimitituko du, eta EH Bilduk hauteskundeetara aurkeztu zuen zerrendako zazpigarren zaldibartarrak, Jasone Urizarrek, hartuko du kargua.

Sei urte —legegintzaldi bat eta erdi— aritu da Arizmendiarrieta zinegotzi lanetan, eta Ogasun, langileria eta ondare batzordearen buru jardun da. Kargu publikoa uzteko arrazoia, "irakasle eta zinegotzi lanak uztartzeko zailtasuna" izan dela azaldu du Arizmendiarrietak, eta zinegotzi kargua utzita ere, Zaldibarko EH Bilduko kide lez lanean jarraituko duela.

Herriko hainbat mugimendutako kidea izan da Arizmendiarrietaren ordez zinegotzi berria izango den Jasone Urizar. Euskal preso eta iheslarien aldeko ekimenetan, Gaztetxean, Castet Elkartean eta Gure Esku Dago dinamikan parte hartu izan du 38 urteko irakasle zaldibartarrak. Orain arte Eneritz Azpitarte buru izan duen Berdintasun batzordearen ardura hartuko du. Azpitarte, aldiz, Ogasun, langilego eta ondare batzordean jardungo da.


Sei urteotan egindako lana eskertu diote kideek Arizmendiarrietari.

# Kolobot proiektua garatu dute LH institutuan

Ekainaren 20an aurkeztuko dute ikastetxean

IURRETA A. Basauri

Laugarren industria-iraultza deituriko Basque Industry 4.0 ekimena aukera moduan ulertuta, horrek eskatzen duen kultura aldaketan lagundu gura du Iurretako Lanbide Heziketa zentroak, eta bide horretan Kolobot proiektua landu dute: hezkuntzarako prezio baxuko beso biko robot kolaboratiboa, open hardware eta open software-ean oinarritutakoa.

Robotika kontzeptu berri bat jaio da: segurtasun hesirik gabe lan egiten duten robot kolaboratiboa. Azaldu dutenez, "robot hauek gizakiekin integratzen dira fabrikazio guneetan, langileekin eta hauen alboan jardutekoko gaitasuna eskainiz". Enpresa txiki eta ertainei malgutasuna ematen diete. Programatzeko errazak dira eta langileak gai dira erraz instalatzeko; robotaren eskumuturra hainbat posiziotara mugituz programatzen da.

"Indar eta kontsumo sentsoreak dituzte trabak saihesteko, eta euren sistemak deskonektatzeko, langileari min egitea saihestuz", gaineratu dutenez.

## Udaletxe eta plaza inguruko lanak hasi dituzte

ATXONDO M.Zuazubiskar

Apatako espazio publikoak zelan berrantolatu pentsatzeko, Kale Irekiak prozesuak ondorio argi bat utzi zuen Apatan. Prozesu parte-hartzailean herritarrek adierazi zutenez, plaza eta bere ingurua dira Apatako erdigunea, eta hango espazioa errealitate horretara moldatu beharko litzateke. Hori horrela, Atxondoko Udalak udaletxea eta plaza ingurua atontzea erabaki zuen.

Asteon hasi dira Apatako erdigunean obrak egiten. 38.500 euroko aurrekontua duten obrak bi astetan egingo dituztela jakitera eman du Atxondoko Udalak. "Herriko erdigunea oinezkoentzako gune bilakatu gura dugu. Hori horrela, Euskalerria kaleko irisgarritasuna hobetuko dugu, besteak beste", adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak.








Zazpi lagunen omenez lore-eskaintza egin zuten unea.


Omenaldian parte hartu zuten ordezkarietako batzuk, talde argazkian.

# Gallastegi, Verdes, Zabala eta Diaz oroitu dituzte Asturiasen, istripuaren 30. urtemugan

## Elorrion eta Garain presente dute erreskate taldeko kideen memoria

**DURANGALDEA** M. Onaindia
30 urte pasatu dira istriputik, baina Elorrion eta Garain presente dute Jabier Gallastegi, Lourdes Verdes, Joseba Zabala eta Luis Angel Diazen oroimena. Euskadiko Salbamentuko Txakurren Taldeko kide horiek 1987ko ekainararen 12an hil ziren, Covadongako lakuetan (Asturias) erreskate batean parte hartzen zebiltzala. Domekan leku horretan bertan omendu zituzten, urtero Asturiasko Erreskateko Txakur Unitateak antolatzen duen ekitaldian, eta Durangaldetik hainbat lagun joan ziren bidaian, hemengo erreskate taldeko kide batzuk ere bai, besteak beste.

### Erakundeen ordezkaritza

Ordezkari politikoen atalean, Elorrioko Idoia Buruaga eta Garaiko Gontzal Sarrigoitia alkateek, Estefanía Beltrán de Heredia Eusko Jaurlaritzako segurtasun sailburuak, Asturiasko Presidentziako kontseilari Guillermo Martinezek eta Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko zuzendari Pedro Anituak ere parte hartu zuten.

> Ekitaldian zehar, hildakoen omenez ipinitako oroitarrian lore-eskaintza egin zuten

> Europako Mendietan galdutako ume baten bila ari zirela gertatu zen istripua, 1987an

Ekitaldian zehar, hildakoen omenez ipinitako oroitarrian lore-eskaintza egin zuten, eta dantzarien saioa ere egon zen. Erakundeetako ordezkariek berba egin ostean, Asturiasko ereserkiagaz amaitu zuten ekitaldia.

### Ume baten bila

Europako Mendietan galdutako ume baten bila ari zirela gertatu zen istripua, 1987an. Ertzaintzaren helikoptero batean zihoazen lau euskaldunak, hango beste hiru kidegaz batera. Zazpi lagun hil ziren guztira.

# Kalean dauden 153 pertsona hartu dituzte neguko aterpe zerbitzuan

## 2018rako, zerbitzua urte osora hedatzeko erronka dauka Amankomunazgoak



Etxebakoen alde Durangon egindako mobilizazioaren artxiboko irudia.

**DURANGALDEA** M.Onaindia
Neguan eskaini duen aterpe zerbitzuaren balantzea egin du Amankomunazgoak, eta prentsara bidali ditu ondorio nagusiak. Iazko abenduaren 1etik aurtengo martxoaren 31ra bitartean, kalean dauden 153 lagun hartu dituzte, 141 gizon eta 12 emakume, hain zuzen. Horietatik 35 soilik ziren estatuz kanpokoak. 2018rako, zerbitzua urte osora hedatzeko erronka daukate. Gainera, Amankomunazgoz kanpo dauden Berriz, Mallabia, Zornotza, Ermua, Lea Artibai eta Lea Ibarreko biztanleen esku ere ipini gura dute.

Ibaizabal kooperatibako Errota ostatuan 10 oheko gela bat alokatu du eskualdeko instituzioak, zerbitzua bertan eskaintzeko. Etxebakoek hiru eguneko baimena eduki dute, eguraldi txarragatik luzatu ahal izan dena.

> Egitasmoan edukitako koordinazioa nabarmendu dute Amankomunazgoko arduradunek

Gizarte zerbitzuek, Durangoko udaltzaingoak eta ostatuak egitasmoan edukitako koordinazioa nabarmendu dute Amankomunazgoko arduradunek, eta udaltzainek agertutako inplikazioa eskertu dute.






# Bizilekuak egiteko eskaintzara ez da enpresa sustatzailerik aurkeztu

Batzarra egingo dute, aurrera begira zer bide hartu aztertzeko



Garauntzan duten lurzoruan etxebizitzak sustatu gura ditu udalak aspalditik.

**IZURTZA** Joseba Derteano

Garauntza inguruan etxebizitza tasatuak egiteko eskaintzara ez da enpresa sustatzailerik aurkeztu. Sustatzaileak erakartzeko amu moduan, saldu barik geratu zitezkeen bizileku batzuk erosteko konpromisoa jaso zuen udalak baldintza orrian, baina, hala ere, ez da proposamenik jaso. Orain, "egoera aztertzeko eta aurrera begira zer bide aukeratu erabakitzeko", batzar bat egingo dutela adierazi du Lorea Muñoz alkateak.

Azken urteetan Izurtzako biztanlerian eman den beherakadari aurre egiteko modua da Garauntzan bizilekuak eraikitzea. Egun etxebizitzen salmenta sasoi batekoa bezain emankorra ez denez, eta sustatzaileak konbentzitzea gaitza denez, berme batzuk eskaini gura zizkien udalak, saldu barik geratu zitezkeen etxebizitza batzuk erosteko konpromisoa hartuz. Lau bizileku erosteko adinako kreditua eskatzeko prest zeuden.

## Paella lehiaketa, Momoitioko jaiak ospatzeko

**GARAI** M.O.

Datorren barikuan, ekainaren 23an hasiko dira Momoitioko San Juan jaiak, eta asteburuko egitaraua prestatu dute udalak eta Trumoitte kultur elkartekoek. Besteak beste, paella lehiaketa egingo dute 24an, 12:00etako mezaren ostean hasita. Antolatzaileen esanetan, oilasko-paella izan beharko da, eta parte-hartzaile bakoitzak eraman beharko ditu osagaiak eta kozinatzeko tresnak. 100, 60 eta 40 euroko sariak prestatu dituzte hiru onenentzat.

23an, 20:00etan, Donien Atxa igo, eta gero sua piztuko dute. 25ean, meza eta dantzariak egongo dira, 11:00etan.

## Hilaren 23an San Juan jaiak hasiko dituzte Goitan

**MALLABIA** J.D.

Ekainaren 23tik 25era San Juan jaiak ospatuko dituzte Goita auzoan. Datorren barikuan, 19:00etan, txopoa jaso eta auzo afaria egingo dute Felipe Zelaietaren eta Asier Otamendiren musikak lagunduta. Zapatuan, 18:00etan, herri kirolak daude eta 20:00etan tortilla lehiaketa. 22:00etan tute txapelketa eta txapel jaurtiketaren III. txapelketa egingo dituzte.

Domekan, mezaren ostean, dantza saioa eta harrijasotzaile erakustaldia daude, besteak beste. 14:30ean paella txapelketari ekingo diote. 17:30ean ume jolasak eta motozerra zein trontza erakustaldiak hasiko dira.

**DURANGALDEA ASTEON**

### Bonuen kanpainara batzeko aukera

**ABADIÑO >** Herriko komertzioek ekainaren 20ra arteko epea dute erosketa-bonuen kanpainara batzeko. Udalaren kanpainak herriko komertzioa sustatzea du helburu. Irailaren 1etik aurrera 5 euroko 1.000 bonu banatuko dituzte, kanpainan sartutako dendetan egiten diren 15 eurotik gorako erosketetan erabiltzeko.

### Kurdistanen aldeko jaia egingo dute Sapuetxen

**DURANGO >** Zapatuko jaiagaz lortutako dirua Kurdistanera bidaliko dute. 19:00etan *Izarrak Marrazten* antzezlana eskainiko du Karrika antzerki taldeak. 20:00etan hiru talderen kontzertuak hasiko dira: Durangoko D.S.F. eta Maldita Shit hip hop taldeena eta Lekeitioko Nabil pop-rock taldearena.

### Jupiter eta Saturno hurrago ikusteko aukera

**DURANGO >** Izarra astronomia elkarteak jendaurreko behaketa astronomikora deitu du zapaturako, 23:00etarako. Zuhatzola parkean batuko dira. Hainbat konstelazio eta Jupiter eta Saturno planetak behatuko dituzte. Johnson kometa ikusten ere saiatuko dira. Lainotuta badago, bertan behera utziko dute saioa.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**DANI MAEZTU PEREZ**
EH Bildu



### San Fausto Kopenhagen?

Sare sozialetan bideo bat ari da zabaltzen: Durangoko gobernu taldeko hiru kide San Faustora doaz, auzoko birgaitze lanak bukatu ostean argazki bat ateratzeko bertan. Argazkira gonbidatuta dauden auzokideak kexati agertzen dira; ez dute ulertzen zergatik kale oso estu batean, bizikletentzako ibilbidea kotxeen kontrako norabidean jarri den, euren iritziz oso arriskutsua baita.

Bat-batean, kasualitatez, udal teknikari bat agertzen da eztabaidan, eta bere argumentazioa pisuzkoa da, teknikaria jaten ari den "marroiaren" tamainakoa gutxienez: "Europako hainbat hiriburutan badaude horrelako bide gorriak".

Tira, Europako hiriburu horietan, San Fauston egin diren lanak egin baino lehen herritarren parte hartzea sustatuko zen, euren iritzia jakiteko eta euren erabakiak errespetatzeko. Era berean, euren iritzia eta parte hartzea bilatuko zen bide gorriak diseinatu eta egiterako orduan. Eta, noski, Europako leku horietan politikariak ez lirateke agertuko soilik azken egunean eurekin batera argazki bat ateratzera. Arlo horietan, Durangoko San Faustoko auzokideak dira, alegia, urteetan abandonatuta egon diren auzokideak. Hori bai, kontrako norabidean bide gorri bat jartzeko, kasu horretan San Faustoko Zirarmendieta kalea, Amsterdam edo Kopenhageko kale bat da.

**IRITZIA**

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Gutuna

*Ez zera zu gaixoa/ez daukazu gaitza/Heriotzarekilan/ zure ahalegintza/Bizirik irtetzea/iraun esperantza/ bizia bersortzea/zain daukazun dantza.* Joseba Barriolak abestu zion behin Aitzol Gogortzari. Ezin doinu hori burutik kendu. Urtebete pasatu da Durangoko Gorka Fraile preso durangarraren inguruan udalak bere egoeraren konponbidearen inguruko mozioa onartu zuenetik. Maiatzean, urtebete pasatu da, Gorkari azken mediku errebisioa egin ziotenetik. Gorkak preso jarraitzen du, gaixo jarraitzen du, larriki gaixo. Erakunde publikoei Gorkari oinarrizko eskubideak bermatzea baino ez genien eskatzen. Osasun eskubidea bermatzea, konfiantzazko mediku batek bere informearen jarraipena egitea eta elikadura duina jasotzeko aukera izatea. Sendatzeko eskubidea, etxean lagun eta senideekin sendatzeko eskubidea. Hitz hauek jarri zituen Josebak Aitzolen ahotan; *Ez nitaz euki pena/ez egin negarrez/Nire gogoz nabil ta/ez ibili auspez/Mundu berri bat daukat/barnean saminez/Hazi eder askoak/erditzeko minez.* Benetan sinisten dut konponbiderako giltza euskal gizartearen eskuetan dagoela. Izan gaitezen giltza!

Ane Ortuondo Bikandi. Gorka Fraileren plataformaren izenean.

**Berbaz**

**Maitane Grande Mendizabal** | Itsas zabaleko arrantza egiten duen Bermeoko enpresa batean dihardu | Durango, 1983

# “Babesleku gehiago behar dira itsasoan, eta, batez ere, kontzientziazoa landu behar da”

Itsas zabaleko arrantzan neurri jasangarriak bete daitezen laguntzen lan egiten du



> BERBAZ Aitziber Basauri

**Itsas zabaleko arrantzan dihardu Maitane Grandek, jasangarritasun neurriak bete daitezen laguntzen. Aurretik, Azti Tecnalian eta EHUn ere egin du lan. Itsas Zientziak ikasi ditu, eta atunaren ugalketa eta elikadura baldintzetan oinarritu zuen doktore tesia. Itsasoko ingurumenaren eta baliabideen inguruko masterra ere badu. Aita Lekeitiokoa izanik, beti izan du lotura itsasoagaz.**

**Bermeoko atun-industrian ari zara lanean. Zein da zure lana?**
Normalean, bulegoan egoten naiz, itsasontziko patroiagaz eta arrantzaleekin hartu-emanean beti. Jasangarritasun neurriak aplikatzen laguntzen diet arrantzaleei —enpresak adostu dituenak eta indarrean den erregulazioak behartzen dituenak—. Atlantikoan, Indiako Ozeanoan eta Pazifikoan egiten dugu lan. Askotariko kontrol neurriak daude, eta horiek betetzen laguntzeko erremintak ematen dizkiet.

**Jardunbide egokiak ere bermatzen dituzu?**
Bai. Ingurasarea erabiliz atuna arrantzatzen dugu, eta arrantza mota hau harrapaketa gehigarrian nahiko jasangarria den arren, batzuetan beste espezie batzuk ere harrapatu genitzake: marrazoak, dortokak, marrazo baleak... Horiek askatzeko, jardunbide egokietan etengabeko prestakuntza ematen diegu arrantzaleei. Bestalde, AZTIk edo bestelako enpresa teknologikoek garatutako ikerketa proiektuetan laguntzen dugunean, lotura naiz ni. Garatutako material edo teknologia berriak itsasontzietan probatzen dira.

**Itsasoan ere denboraldi luzeak egiten dituzu.**
Nire lanaren beste zati bat da. Normalean, urtean hilabete batez egoten naiz itsasoan. Batutako informazio ozeanografikoa —tenperatura, gazitasuna, plankton kontzentrazioa...— interpretatzen dut, arrantzarako gune egokiak aurkitzeko. Teknologia handia dago itsasontzi hauetan, atuna antzemateko; eta arrantza emankor eta jasangarriagoa lortzeko. Garrantzitsua da itsasontzian egotea, iparra ez galtzeko. Izan ere, baliteke bulegoan hau edo bestea pentsatzea eta itsasontzian hori egitea ezinezkoa izatea. Informazioa etengabe eman eta jasotzen dugu gure artean.

**Gogorra egiten da?**
Lehenengo astea egiten da gogorra. Gorputza estimulu askotara eginda dago lehorrean, batera eta bestera gabiltza. Erritmo hori jaitsi egin behar da itsasoan. Lekua murriztua da, ordutegiak oso finkatuta daude eta baliteke lauzpabost egunean ez arrantzatzea... Egokitu egin behar zara. Eguneroko errutinan sartzea da garrantzitsua.

**Emakume bakarrenetarikoa izango zara itsasontzian.**
Normalean, kanpoko behatzaile bat egoten da. AZTIko edo Espainiako Ozeanografia Institutukoa, eta aurreko bi urteetan emakumeak izan ziren. Aurten, neu izan naiz bakarra, kamerak jarri ditugu-eta behatzaile lanak egiteko. Hala ere, dagoeneko ez zait gogorra egiten. Normalean, patroia eta tripulazioa ezagunak dira, eta asko laguntzen du horrek. Oso giro ona tokatu izan zait beti. Ondo egon naiz beti.

**Atlantikoan egoten zara.**
Bai, Pazifikoa baino erakargarriagoak dira niretzat Indiako Ozeanoa edo Atlantikoa. Gustatuko litzaidake Indiako Ozeanora joatea, hango atunari buruz egin nuen-eta doktoretza. Baina han piratak daude, nahiz eta euren jarduera nahiko jaitsi den. Badirudi seguruagoa dela orain, baina AZTIn nengoenean lankide batek eta biok sustoa izan genuen. Gainera, arrantza estrategia aktiboagoa da Atlantikoan. Pazifikoa handiagoa da, eta egun asko egon daitezke arrantzatu gabe. Arrantzaleengandik ikasteko, eta eurek nigandik, hobeak dira Atlantikoa edo Indiakoa.

> *“Gorputza estimulu askotara eginda dago lehorrean. Erritmo hori jaitsi behar da itsasoan”*

> *“Itsasoaren %1 ere ez dugu ezagutzen; lan egiten dugun espezieetan ez dugu dena ezagutzen”*

**Mundu ezezaguna da gehienontzat itsasoa?**
Itsasoaren %1 ere ez dugu ezagutzen. Are gehiago, lan egiten dugun espezieetan ere ez dugu dena ezagutzen. Adibidez, atuna, eboluzioz, ur gaineko objektuen azpian batzen da. Hala, arrantzaleek paletak botatzen dituzte itsasora, GPS lokalizazioa duen zunda bategaz. Atunak hor azpian batzen dira, eta arrantzaleek buia horiei jarraitzen diete. Hala ere, oraindik ez dakigu zergatik batzen diren atunak ur gaineko objektuetan.

**Atuna arrantzatzeko mugatuago daude hemen?**
Kuotak daude. Baxurako arrantzaleek atungorria eta hegaluzea hartzen dituzte hemen. Sasoi batean, atungorria gehiegi ustiatu zen, baina, orain, badirudi berreskuratzen ari dela. Itsas zabaleko arrantzan kontrol gutxiago dago, konprometituta ez dauden herrialdeak daude. Baina gero eta kontrol gehiago dago.

**Ze egoeran dago euskal kosta?**
Gero eta hobeto. Badago zer hobetu, baina ingurumen eta arrantza arloan pausoak ematen ari gara. Lan asko egin da itsasadarrak berreskuratzen, Bilbokoa tarteko, eta arrantza oso erregulatuta dago. Arrantzaleek ere gero eta hobeto betetzen dituzte erregulazio horiek, eta hobera goaz. Boli Kostan (Afrika) egoten naiz, eta zerikusirik ez du. Borroka itzela dago, trukerako txanpona da arraina.

**Arrantzak kosta kaltetu du?**
Asko arrantzatzeko presio horrek egin dio kalte, baina errekuperatzen dabil. Hala ere, itsasoan babesleku gehiago behar dira, eta, batez ere, kontzientziazioa landu behar da: arrantzaleekin, isilean arrantzatzen dutenekin, kontsumitzaileekin... Kosta eta itsasoa zaintzearen garrantziaz hezi behar da eta kontsumo ohituretan eragin: zer eta noiz kontsumitu, nola arrantzatu espezie bat edo bestea... Baxuran eta itsas zabalean dabiltzan enpresak hobetuz doaz, kontsumitzaileen presioaren eraginez. Ekologikorantz goaz eta sektorearen jarduera ere gero eta jasangarriagoa da, nabarmen.

Kultura



Black Sabbath taldearen bertsioak eskainiko ditu Kohatu Berrizko taldeak.



Besteak beste, Scorpions taldearen kantak joko dituzte Cien Duros taldeko ermuarrek.



Jaialdi honetan parte hartzeko eratu dute La Década Religiosa laukotea.



Emanaldi oso eklektikoa eskainiko du Enetaran Zornotzako bikoteak.

# 70eko hamarkadako kanten bertsioak joko dituzte Durangaldeko taldeek, Plateruenean

Besteak beste, The Clash, Scorpions, Patti Smith edo Benito Lertxundiren kantak izango dira entzungai, bihar, 21:00etan

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Durangaldeko bost taldek parte hartuko dute ekainaren 17an Plateruenean lehenengoz egingo duten Dibertsio Gauean. 70eko hamarkadan ezagun egin ziren kanten bertsioak izango dira entzungai, bihar, 21:00etan hasiko den kontzertuan.

Jaialdiaren izenburuak adierazten duen bezala, bertsioen jaialdi bat egitea ez ezik, oholtza gainera ateratzen direnek zein bihar Plateruenera bertaratzen diren musikazaleek ere ondo pasatzea, dibertitzea, da Plateruenеko biharko hitzorduaren helburua. Horrela, jai horretan parte hartzeko, 70eko hamarkadako arropekin janztera animatu dituzte musikariak zein entzuleak jaialdia antolatu duten Plateruenеko kideek.

Durangaldeko hainbat herritako musikariek osaturiko bost musika taldeek askotariko bertsioak eskainiko dituzte Plateruenean, bihar. Besteak beste, Nino Bravo, Anje Duhalde, The Clash, Bob Marley, John Lennon edo Black Sabbath taldeen kantak joko dituzte.

> 70eko hamarkadan modakoak ziren arropekin janztera animatu dituzte musikariak zein entzuleak

> Muted, Ymotek eta Tres41 taldeetan dabiltzan lau musikarik laukote bat eratu dute bihar jotzeko

### Hainbat taldetakoak batuta

La Década Religiosa taldea da parte hartuko duenetariko bat. Abadiñoko Muted eta Ymotek eta Berrizko Tres41 musika taldeetan jotzen duten lau musikarik sortu dute taldea, Plateruenеko bertsioen gauan parte hartzeko, espreski. Edu Perezek, Aitzol Maiztegik, Javi Villarrek eta Asier Otadui *Zana*-k Nino Bravo, Rafaela Carra, Fórmula Quinta edo Tony Ronald taldeen kantak joko dituzte, adibidez.

### Berrizko talde gazte bi

Berrizko Etsipen eta Kohatu taldeetan dabiltzan zazpi musikari gazte ere animatu dira Plateruenеko bertsioen jaian euren alea ipintzera. Etsipen taldeko Ibon Azpirik, Iker Olabegoiak, Imanol Jareñok eta Martin Sarasketak The Clash talde ingelesaren kantak joko dituzte Dibertsio Gauan.

Black Sabbath taldearen kanta ezagunak joko dituzte, bestalde, Kohatu taldeko Joseba Romerok, Xabi Gutierrezek, Bingen Bañosek eta Martin Sarasketak. Besteak beste, *London Calling*, *Death of Glory*, *Paranoid* eta *Children of the Grave* kantak joko dituzte Berrizko musikari gazteek.

> Berrizko Etsipen eta Kohatu taldeko gazteek The Clash eta Black Sabbath taldeen kantak joko dituzte

> Eneko Larruzea eta Arantza Agirre musikari zornotzarrak akustikoan jardungo dira

### Zornotzarren akustikoa

Eneko Larruzea eta Arantza Agirre Zornotzako musikari gazteak akustikoan jardungo dira Durangoko Dibertsio Gauan. John Lennon, Bob Marley, Abba, Bonnie Tyler, Benito Lertxundi, Patti Smith eta Anje Duhalderen kantak joko dituzte, besteak beste. Agirregaz bikotea osatu aurretik, bakarlari jardundakoa da Larruzea, eta Kezkak taldean ibili zen Agirre. Urritik dihardute elkarregaz jotzen, eta dagoeneko euren kantak konposatzen ere hasita dauden arren, orainarte bertsioak jo izan dituzte batez ere.

### Ermuako beteranoak

Lau musikari ermuarrek sorturiko Cien Duros taldeak ere parte hartuko du Dibertsio Gauan. Juanjo de Miguel, Pedro Maeso, Angel Cáceres eta Miguel Ballesteros taldekideek urte asko daramate hainbat musika taldetan jotzen, eta, bihar, gaztetatik entzun dituzten Scorpions, Rainbow, UFO edo Trust taldeen kantak joko dituzte.

# Emakume musikariak izango dira Haizetara jaialdian protagonista

## Ekainaren 23tik 25era, 9 talde arituko dira Zornotzako Haizetara lehiaketan



Gutxienez taldekideen erdiak emakumeak dituzte lehiaketan parte hartuko duten musika taldeek.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Taldekideen gehiengoa emakumeak dituzten taldeak izango dira protagonista, aurten, Zornotzako Haizetara kale musika lehiaketan. Ekainaren 23tik 25era arte egingo dute lehiaketa horren 12. edizioa, Zornotzan. Berdintasunaren aldeko borrokarekin bat egin gura du ekimena antolatzen duen Ametx erakunde autonomoak, emakumeak aurtengo lehiaketaren protagonista hautatuta. "Emakumeek kaleko arteetan duten presentzia indartzea eta ikusaraztea", azaldu dutenez.

Nazioarteko bederatzi taldek parte hartuko dute lehiaketan aurten: Bartzelonako Balkan Paradise Orchestrak, Las Taradas argentinarrek, Durangoko Sugarri fanfarreak, Londresko Tell Tale Tusk taldekoek, Bluenette Sisters & the Seamen Orchestra danimarkarrak, Frantziako Tolosako Wonder Brass Band taldeak, Tokyo Brass Style japoniarrek, The Dawlins madrildarrek eta Pas Ce Soir Chéri belgikarrak.

Musikaren eta arte eszenikoen arloko profesionalek osatuko dute epaimahaia, eta hiru sari banatuko dituzte: lehiaketako bandarik onenak 10.000 euroko saria jasoko du, 4.000 eurokoa publikoaren gustukoena denak eta 1.000 euroko saria emango diote instrumentista onenari.

Ekainaren 23an, 18:30ean, Zelaieta parkean egingo duten aurkezpen ofizialak emango dio hasiera jaialdiari, eta ekainaren 25ean amaituko da 2017ko Haizetara, 13:30ean egingo duten sari banaketagaz. Asteburu osoan, Zornotzako kale eta plazetan ibiliko dira Bizkaiko Aldundiak eta Zornotzako Udalak babesten duten musika lehiaketako parte-hartzaileak euren emanaldietan duten onena ematen.

### Ekintza osagarriak

Haizetara jaialdiko egunetan, gainera, bi jam-session eta argazki erakusketa bat ere izango dira, Zornotzan. Barikuan eta zapatuan, 23:00etan, izango dira jam-sessionak, Girls Band-ek eta Elsa Lizundia saxofonista bizkaitarrak gidaturik, Harrison hoteleko terrazan.

Zelaieta Zentroan, Serbiako Guça eskualdeko Urrezko Tronpeta jaialdiari buruzko *Balkaneros* argazki erakusketa egongo da ikusgai. Aurreko edizioetan bezala, bestalde, lau gastronomia gune atonduko dituzte Zornotzako hainbat plazatan.

# Argazki liburuen inguruko tailerra eskainiko du Golpek

## Begira Photo jaialdiak gonbidatu du Durangora



14 orduko ikastaroa eskainiko du, ekainaren 24an eta 25ean.

> ARGAZKIGINTZA I. E.

Urriaren 26tik azaroaren 18ra egingo dute Begira Photo jaialdiaren zazpigarren edizioa, Durangon. Jaialdi hori antolatzen duen Kinua elkartearen eskutik, baina, argazkigintzari loturiko askotariko proposamenak lehenago ere izango dira martxan. Ekainaren 24an eta 25ean, esaterako, Gonzalo Golpe (Madril, 1975) arte editore eta ekoizpen grafikoan espezialistak tailerra eskainiko du Pinondo Etxean. 14 orduko tailerra izango da, eta argazki liburu baten kontzeptualizazioa, ekoizpena eta publikazioa landuko dituzte. Ekainaren 24 eta 25eko tailerrari buruzko informazioa eskatu zein izena emateko, 658708264 telefonora deitu daiteke.

Mendia izango da udazkenean Durangon argazkigintza garaikideari buruz egingo duten Begira Photo jaialdiaren gaia. Iaz bezala, jaialdiaren barruan egingo duten erakusketa kolektiboa osatzeko deialdia egin dute antolatzaileek. Mendia gaitzat duten lanak bidali gura dituzten argazkizaleek ekainaren 30era arteko epea dute parte hartzeko.

Bestalde, argazkigintzako talentu berrien lanak ezagutzera emateko helburuagaz aurten lehenengoz antolatu duten argazkigintza sorkuntzako sarian parte hartzeko epe muga ere ekainaren 30a da. 23ra artekoa da, bestalde, argazkigintzari buruzko saiakeren lehiaketara lanak bidaltzeko epea.

## GEURE DURANGALDEA

**FERNAN RUIZ LARRINGAN**
Euskaltzalea



### Lurrari lotuta

Umeak kakatzan ortozik ibiltzen ziren leku horietako batean sortu zen. Eskolara ere ortozik joaten omen zen. Uda sasoian, arkatza eta zirriborroz betetako koadernoa bazterrean laga eta egunak igarotzen zituen goialdeko larretan, borda batean, aitonari ganadua gobernatzen laguntzen. Hain zituen oinak lurrari atxikiak, ze, urte gutxitan, suster-zainak igarri zekizkiokeen oinazpietan. Ez zuen astirik izan, ordea, horrekin jabetzeko eta, konturatu orduko, halabeharrez, geure Durangaldera iritsi zen zementuaren loraldian. Laster hasi zitzaizkion oinazpiko susterrak idortu eta narrua gogortzen, gure herriak porlanez janzten zituzten sasoian. Orain, burua galtzen hasita dagoen arren, ondo gogoratzen ditu umezaroko pasarte batzuk, eta argi izan du beti nor den, nongoa, eta zergatik ibili den hamaika borrokatan sartuta.

Ordu luzeak ematen ditu zementuzko parkean eserita umeen olgeta eta joan-etorriei begira. Badago berdegunerik parkean, zementuaren gaineko lur faltsua, zuhaitzen susterrak lehertutako zoru lehor gogorra. Dio, dotore eraiki ditugula herriak, koloretsu, lehen baino erosoago ibiltzeko, berdeago. Ikuskera besterik ez. Zerua urratzen zuten garabien garaietatik paisaiagintza nagusi denekora igaro gara. Baina nago, identitatea galduta ari garela herriak merkaturatzen; lur faltsuan suster makalak. Oztopo barik, eroso, porlanak jandako identitatetik ari gara paisaiagintzan, kulturgintzan, herrigintzan. Lurra sentitzeko, proba dezagun lupetzean ortozik ibiltzen, agian horrela jabetuko gara nor garen, nongoak eta zergatik ibili behar dugun hamaika borrokatan.







# OSASUN GIDA

## OPTIKA

keinu optometria zentroa
Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.
- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroaudituboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099
www.keinuoptometriazentroa.com
PSE: 162/13

## FISIOTERAPIA

Zainduz
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
Ane Legorburu Munitxa
Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 944 657 132 - 686 906 374
PSE: 119/13

PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA
Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963
PSE: 57/16

## PEDAGOGIA

UGATZ
UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
*Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia*
Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO
ugatz@hotmail.es
Tel.: 944 668 370 - 615 782 090
PSE: 63/63

## PODOLOGIA

PODOLOGIA KLINIKA
GOIATZ MURUA
PODOLOGOA
AINHOA ELORZA
PODOLOGOA
*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*
Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO
Tel.: 946 203 630
PSE: 148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com
Laser berria:
*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*
*Obesitatea-zelulitisa,*
*Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...*
*Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*
Txatxiena, 6
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 387
PSE: 16/09

## MEDIKUNTZA

IGOTZ ARANBARRI
Ezkurdi
osasun zentroa-centro médico
DIABETESA DAUKATEN PERTSONENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUA
Askatasun Etorbidea, 23
DURANGO
Tel.: 946 81 81 81
PSE: 40/17

## ODONTOLOGIA

clinicadentalhortzklinika
B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA
*ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALIZATUA*
Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO
*uecdental@gmail.com*
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454
PSE: 145/13



J.L. URRETA ZABALO
*MEDIKU ESTOMATOLOGOA*
*IMQ, PADI (umeen hortz programa)*
*Ortodontzia*
Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200
PSE: 112/13

## PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak
UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728
PSE: 62/11

# Kaleko 8 ikuskizun dakartza San Agustin kulturgunearen udarako eskaintzak

## Ekainaren 22an, Tokyo Brass Style musika banda japoniarraren kalejiragaz hasiko da programazioa

**> PROGRAMAZIOA** I. Esteban

Ikasturteko areto barrurako programazioa joan zen asteburuan amaitu zuten Durangoko San Agustin kulturgunean, eta, asteon, ekainaren 22tik uztailaren 21era arte antolatu dituzten emanaldien egitaraua aurkeztu dute. Antzerki, musika, zirku eta magia arloko zortzi ikuskizun dakartza Uda Kalean Bizi programazioak Durangoko kale, plaza eta parkeetara.

Ekainaren 22an, Tokyo Brass Style musika banda japoniarraren kalejiragaz hasiko da programazioa. Hamar emakumek osaturiko taldea da Tokyo Brass Style, eta Zornotzako Haizetara jaialdiaren IX. edizioan entzuleen saria jaso zuen. 20:00etan udaletxe plazan hasita, Durangoko Alde Zaharrean ibiliko dira euren funk, ska, swing eta doinu herrikoiak eskaintzen.

Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko arduradunak, Aitziber Irigoras Durangoko alkateak eta Xabier Arana Arandoño elkarteko kideak aurkeztu dute egitaraua. Irigorasek nabarmendu duenez, "aniztasuna eta kalitatea" dira kultur programazio horren bereizgarriak.

Ekain amaierarako eta uztailerako prestatu duten programazioa Euskal Herriko kaleko ikuskizun onenen erakusleihoa izango dela azaldu du Arrazolak. Bestek beste, Cia Tornado konpainiaren *Lapurminak* antzezlana azpimarratu du San Agustingo arduradunak. "Istorio oso dibertigarria da".

Arandoño elkartearen 20. urteurreneko ospakizunen barruko organo kontzertu berezi bat ere hartu dute egitarauan, Javier Artigas eta Benantzi Bilbao organistena eta Josep Maria Berenguer ipuin kontalariarena. Bost urtetik aurrerako adin guztietako publikoari zuzenduriko emanaldia izango da.



Arantza Arrazola kulturgunearen arduraduna, Aitziber Irigoras alkatea eta Xabier Arana, egitarauaren aurkezpenean.

Ekainaren 22an, 20:00etan, *udaletxeko plazatik*
**· Tokyo Brass Style**

Ekainaren 24an, 20:00etan, *Andra Mari elizan*
**· J. Artigas, B. Bilbao eta JM Berenguer, organoa eta ipuin kontalaritza**

Ekainaren 30ean, 19:00etan, *Andra Mari kalean*
**· David Blanco & Asier Kidam magoak**

Uztailaren 2an, 20:00etan, *Andra Mariko elizpean*
**· Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra**

Uztailaren 6an, 20:00etan, *Balbino Garitaonandia plazan*
**· Cia Tornadoren 'Lapurminak'**

Uztailaren 8an, 20:00etan, *Kurutzesantun*
**· Carlos Herrero**

Uztailaren 14an, 20:00etan, *Ezkurdin*
**· Hortzmuga Teatroaren 'Femmes'**

Uztailaren 21ean, 20:00etan, *Musika eskolako parkean*
**· Shakti Olaizolaren 'Baldin Bada'**

---



Eskualdeko dozena bat bertsolarik parte hartu zuten kopla txapelketako laugarren edizioan.

# Josu Zabalari eman diote Kopla Txapelketako 'txapalata' saria

## Otxandioko Mekoletan jokatu zuten, zapatuan, laugarren Kopla Txapelketa

**> BERTSOLARITZA** J. D./I. E.

Durangaldeko bertso eskolak eta Arkotxe kultur elkarteak antolatuta, ekainaren 10ean egin zuten Durangaldeko Kopla Txapelketaren IV. edizioa, Otxandioko Mekoletako jaietan.

Miren Amuriza berriztarra eta Igor Elortza durangarra ailegatu ziren txapelketako buruz burukora. Arkotxe elkartera bertaratutako bertsozaleek egin zuten txapelketako epaile lana, eta irabazlea nor izango zen erabakitzerakoan, berdinketa gertatu zen behin eta berriro. Horregatik, txapelketako irabazlearen saria, *txapalata*, Josu

> Miren Amuriza eta Igor Elortza jardun ziren buruz buru, eta bertsozaleak aritu ziren epaile lanetan

Zabala musikari eta Mekoletako jai batzordeko kideari ematea erabaki zuten Elortzak eta Amurizak. Xabi Aburruzagagaz batera, bertsolariei soinuagaz laguntzen aritu zen Zabala saioan zehar.

Itxaro Juaristik eta Ainhoa Urienek emandako gaiekin aritu ziren Mekoletako saioan eskualdeko hamabi bertsolariok: Eneko Abasolo *Abarkas*, Txaber Altube, Ander Aldazabal, Iruri Altzerreka, Miren Amuriza, Iker Apraiz, Aitor Bizkarra, Eneko Barruetabeña, Igor Elortza, Aitor Esteban, Igor Galartza eta Manu Goiogana.

# Trikitilari gazteen Elorrioko zita

**> MUSIKA** I. E.

Uztailaren 1ean, 19:00etan, Elorrioko plazako frontoian jokatuko dute Trikitilari Gazteen IV. Txapelketa. Sei bikotek parte hartu ahalko dute txapelketan, eta ekainaren 26ra arte eman dezakete izena (*iturri@elorrio.eus* helbidera idatzita).

*Trikitia*, *Porrusalda*, eta gehienez 3 minutuko iraupena izan dezakeen *Pot-pourria* eskaini beharko dute txapelketan parte hartzen duten 20 urte arteko trikitilariek.

> Sei bikotek parte hartu ahalko dute txapelketan, eta ekainaren 26ra arte eman daiteke izena

Txapela eta 250 euroko saria jasoko ditu bikote irabazleak, 200 bigarren sailkatzen denak, eta 150 hirugarrenak. Sariak banatzeko, piezen zailtasuna, musikarien bat etortzea, kantua, panderojolearen lana eta dantzagarritasuna hartuko ditu epaimahaiak aintzat.

# Txomin eta Peru Magdalenak Juul saria jaso dute

**> LITERATURA** I. E.

Maiatzaren 31n Lesakan egin zuten ekitaldian eman zituzten aurtengo Juul sariak, eta Peru eta Txomin Magdalena durangarren *Txomintxo eta Perutxo maiteminduta* liburua izan zen saridunetako bat. LHko lehenengo eta bigarren mailakoen kategorian jaso zuten Magdalena anaiek saria.

Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz antolatzen du Ikastolen Elkarteak Juul sariketa, eta ekimenaren 19. edizioa izan da aurtengoa. Apirilean 53 ikastolatan egindako bozketan ikasleek aukeraturiko liburuetako bat izan da durangarrena. Gustuko ipuinak eta ilustrazioak hautatzeko, 26.000 boto eman dituzte umeek.

Peru eta Txomin Magdalena bezala, Margarita del Mazo, Bertol Arrieta, Estibaliz Vivanco, Lur Gallastegi, John Andueza, Jasone Osoro, Toti Martinez de Lezea, Jon Arretxe, Fernando Morillo, Iván Landa, Eider Eibar, Jokin Mitxelena eta Iosu Mitxelena ere saritu dituzte ikasleek.

Kirola

Joseba Etxeberria Lizardi (Elgoibar, 1977) | Futbol jokalari ohia eta Amorebietako entrenatzailea

# "Erronka desberdina izango da niretzat eta gogotsu nago; ideia berriak probatzeko aukera izango dut"

Athleticen urtebeterako eszedentzia eskatu eta hurrengo denboraldian Amorebieta entrenatuko du Joseba Etxeberriak

> KIROLA J.Derteano

**Zornotzako jatetxe ezagun batean bazkalosteko tertulian aurkitu ditugu Joseba Etxeberria eta Asier Goiria kirol zuzendaria. Apurka-apurka, denboraldi berria diseinatzen ari dira. Aspalditik ezagutzen dute elkar eta bien artean konfiantza nabari da.**

**Zelan izan da zure fitxaketa?**
Asier Goiria kirol zuzendari berriak entrenatzailea neu izatea gurako lukeela komentatu zidan. Athleticen urte birako kontratua neukan, eta denbora eskatu nion. Josu Urrutiari [Athleticeko presidentea] proposamena azaldu eta ondo iruditu zitzaion.

**Urtebeteko abentura izateak aldatzen du denboraldiari aurre egiteko modua?**
Ez, niretzat erronka berdina da. Urtebete izan edo gehiago izan, gogo eta ilusio berdinagaz hartzen ditut proiektu berriak.

**Hasieratik interesatu zitzaizun eskaintza izan zen?**
Bai. Iaz Hirugarren Mailan entrenatzen ibili nintzen, Baskoniagaz. Beraz, aurtengoa niretzat beste pauso txiki bat da gorantz, eta ilusioz nago.

**Athleticen, jokalariak lehenengo talderako prestatzea da lehentasuna. Aurten, aldiz, emaitzak izango dituzu epaile. Entrenatzaile lez benetan zer eman dezakezun ikusteko erronka bat da?**
Egia da aurten lan mardulagoa dudana, baina aukera gehiago ere izango dut nire ideiak probatzeko. Erronka desberdina da niretzat eta gogotsu nago. Taldeak zelan jokatzea gura dudan oso argi dut. Baita hori lortzeko zer motatako entrenamenduak egin behar ditugun ere.

**Taldeak zelan jokatzea bilatzen duzu, bada?**
Intentsitate handiz eta abiaduragaz jokatzea gustatzen zait. Nire helburua aurredenboraldian ideiarik garrantzitsuenak ondo lantzea da, jokalariak jokatzeko modu hori barneratzen joan daitezen.



> *"Aukeraren bat egon daiteke Bilbao Athleticeko jokalariren bat etortzeko"*

**Amorebieta futbol taldea eta Zornotza herria bera zer puntuaino ezagutzen zenituen?**
Urritxen Amorebietaren partidu asko ikusi ditut. Gainera, Xabi Etxeitaren laguntzagaz ondo informatuta egon naiz. Zornotza ez da arrotza niretzat.

**Eta Aitor Larrazabalegaz berba egin duzu? Zer esan dizu taldeari buruz?**
Bai, denboraldi honetan egin izan dugu berba. Baina, azken batean, bere taldea eta nirea oso desberdinak izango dira. Jokalari berri asko egongo dira eta taldea dezente aldatuko da. Oraingoz, bost-sei baino ez daude kontratuagaz. Beste lau itzultzea gura dugu.

**Taldearen osaketan zeresan handia izango du Asier Goiriak. Aurretik ezagutzen zenuen?**
Asier Aritz Adurizen lagun mina da eta sarritan egon izan gara elkarregaz. Orain erronka berak batu gaitu Amorebieta futbol taldean.

**Fitxaketetan zeuk ere parte hartuko duzu ala Goiriaren ardura esklusiboa da?**
Asierrek badaki zer motatako jokoa egin gura dudan eta horretarako nolako jokalariak behar ditudan. Talde berria elkarregaz lotzen ari gara. Bi pertsonen arteko konfiantza handia denean, lan egitea errazagoa da.

> *"Argi dut zelan jokatzea gura dudan, eta hori lortzeko zer egin behar dugun"*

**Athleticegaz duzun loturagaz, baten batek pentsatu dezake Bilbao Athleticeko jokalariren bat utzita etorri daitekeela...**
Athleticek talde askoren artean aukeratu dezake Bigarren B Mailan, baina, beharbada, aukeraren bat egongo da jokalariren bat etortzeko. Ematen diren mugimenduei adi egon behar dugu, bai Lezaman, bai Zubietan, bai Eibarren eta baita Gasteizen ere. Talde borobil bat osatzeko, jokalari gazteen eta beteranoen arteko oreka lortu gura dugu. Zornotzan bertan ere jokalari garrantzitsuak egon daitezke. Jokalari zornotzarrak batzea ere bilatzen dugu. Hori garrantzitsua da, zaleen konpromisoa handitzeko. Zaleak Urritxera joateko gogoz egon daitezela gura dugu.

**Aurtengo denboraldian nahiko apal ibili da taldea. Goiko postuen borrokara itzultzea da helburua?**
Partiduz partidu joango gara. Nik asko sinesten dut entrenamenduetan. Jokamoldeak egunero-egunero lantzen dira. Denboraldiak aurrera egin ahala ikusiko dugu nora heldu gaitezkeen.

**Zure prestakuntzan Ernesto Valverde izan duzu maisuetako bat.**
Aspalditik ezagutzen dut. Lehenengo, taldekide izan nuen. Ondoren, nire entrenatzailea izan zen, eta gero hiru urtez beragaz aritu naiz lanean lehenengo taldean. Harreman oso ona daukagu, eta beragaz eman dudan denbora aberasgarria izan da. Master bat egitea modukoa izan da.

**Zein izan da Valverdegaz emandako denboran atera duzun ikasgai nagusia?**
Niretzat Ernestoren dohain nagusia hau da: bere jakintzaren eta izaeraren ondorioz, jokalariak konfiantzaz beteta zelairatzea lortzen du. Jokaldiak egiten saiatzeko ausardia izaten dute. Horrez gainera, jokalariek badakite bere exigentzia maila oso altua dela, eta errendimendua apur bat jaitsiz gero beste batek ordezkatuko duela. Nire ustez ere, horiexek dira gakoak: konfiantza eta intentsitatea.

**Valverderi Bartzelona handiegi geratuko zaiola uste dute batzuek.**
Seguru ezetz. Maila handia du eta burutsua da. Hasieratik bertatik gauzak ondo joango zaizkiola uste dut. Pertsona jatorra eta normala da, eta hain talde handietan normaltasun horrek asko laguntzen du. Begira Zidaneri. Osagai horiekin lorpen garrantzitsuak bereganatu ditu.

# Balcón de Bizkaia rallyko autoen irteera streaming bidez eskainiko dute bihar

Euskal Herrian zuzeneko antzerako emankizun bat egiten duten lehenengo aldia izango da




Euskal Herriko Rally txapelketako bigarren proba izango da.

> **AUTOMOBILISMOA** J. D.

Balcón de Bizkaia rallyak zortzigarren aldia egingo du zapatu honetan. Aurtengo nobedade nagusia lehenengo tarteko irteera interneten zuzenean eskainiko dutela da. Iurretako Larrakozelai zelaiaren ondoan hasiko da, 08:36an. Han kamera bat jarriko dute, eta autoak abiatzen diren unea zuzenean jarraitu ahalko da Durangalde Racing-en webgunean. “Euskal Herrian horrelakorik egiten den lehenego aldia izango da”, adierazi du Aketza Santakoloma Durangalde Racing-eko kideak. Lehenengo tarteak 11 kilometro ditu eta Iurretatik Oizera izango da.

Goizeko bigarren tartea rallyari izena ematen dion Bizkaiko begiratoki inguruan hasi eta Berroja auzoan amaituko da (9,6 km) 09:04an. Tarte horiek birritan egingo dituzte.

### Kilometro tarte berria

Aurtengo rallyko beste nobedade bat arratsaldeko ibilbidean dago. Oromiñotik abiatuta, Ibarruri eta Mauma lotuko ditu 13 kilometrotan. Azkenengo kilometroen tartea berria da. Errepide estua eta bihurgunetsua da.

Rallya irabazteko faborito nagusia Aingeru Castro da. Lea Artibaiko proba irabazita, lider dela etorriko da. Gaur, 18:00etan, autoak Landako Gunean izango dira, egiaztapen teknikoak pasatzeko.

## ADITUAREN TXOKOA

**JUAN CARLOS PEREZ VILLUMBRALES**

Areto-futbola



### Harrobia

Orain urte gutxi arte areto-futboleko taldeak futbol 11tik zetozen jokalariekin hornitzen ziren ia erabat. Baina azken aldian egoera hori aldatzen ari da eta, lan sakonari esker, klubak oinarritik eraikitzeko ahaleginak ikusi daitezke.

Klub asko ikastetxeekin akordioetara heltzen dira futbol 5eko taldeak mantendu daitezen eta ume denak ez daitezen futbol 7ra edo futbol 11ra pasatu.

Esaten ari naizenaren adibide eredugarria Sasikoa da. Kadete eta gazte mailako taldeak izatea lortu dute eta horrek jokalariak trebatzea ahalbidetzen die. Elorriok hainbat denboraldi daramatza gazte taldeagaz eta Mallabiak ere lortu du, biztanle gutxiko herria izan arren. Azken denboraldian Mendibeltz gehitu da zerrenda horretara. Denboraldi itzela egin duela esan beharra dago, Bigarren Erregionaleko debutean meritu handiko seigarren postua lortuz.

Euskadin gaitza da oinarrizko taldeak sortzea areto -futbolean. Erreferentziazko talde bat falta da estatuko elite mailan gantxo moduan funtzionatuko duena. Gainera, futbol 11k, Lehen Mailan lau euskal taldegaz eta duen oihartzunagaz, gazteak bide hori hartzera eramaten ditu.

Zelan lagunduko lukeen Athleticek Bartzelona imitatu eta areto-futboleko adarra sortuko balu! Euskadik Lehen Nazional Mailan talde bat izateak egoera erro-errotik aldatuko luke.

Baina…

# Aspuru eta Arana Euskal Herriko onenak trinketean

> **TRINKETA** J.D.

Asier Aspuru abadiñarrak buruz buruzko txapela irabazi du Euskal Herriko txapelketan. Abadiñoko Tornosolo trinketean jokatutako finalean 40-18 irabazi zion Zaramagako Dani Ibarrondori. Gazte mailako finalean Jon Arana abadiñarra eta Lur Ziarrusta geratu ziren txapeldun. 40-38 menderatu zuten Txukun Lakuako bikotea.



Aspuru, Arana eta Ziarrusta txapelagaz, Tornosolon.

# Bizkaia-Durangoren garaipen japoniarra

Miho Yoshikawak Kopako proba bat irabazi du

> **TXIRRINDULARITZA** J. D.

Aurtengo taldea aurkeztu zutenean, indartsu eta ilusioz beteta zeudela adierazi zuen Agurtzane Elorriaga zuzendariak. Harrezkero egin duten bideak itxaropentsu egoteko arrazoiak bazituztela erakutsi du. Espainiako Kopan orain arte lehiatutako zazpi lasterketetatik bost irabazi dituzte, eta garaipen horiek lau txirrindulariren artean lortu izanak taldeak duen maila erakusten du. Joan zen asteburuan Miho Yoshikawa japoniarraren txanda izan zen Caspen (Zaragoza). Aurretik, Lourdes Oyarbidek lasterketa bi irabazita ditu, eta Paola Muñozek eta Mavi Garciak bana. Gainera, Garcia lider dago sailkapen nagusian.




Miho Yoshikawa podiumean.












KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

*Durangoko herrigunean*

*Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*

Etorri ikustera!

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon

# Bidezabaleko emakumeak atletismoaren gailurrean

## Ohorezko Mailara, Estatuko kategoria nagusienera igo dira berriro



Bidezabaleko emakumeen taldea estatuan lehiatzen den Bizkaiko talde bakarra da.

**> ATLETISMOA** Joseba Derteano

Orain hiru urte galdutako kategoria berreskuratu du Bidezabalek, eta datorren urtean Espainiako talderik onenen kontra lehiatuko da Ohorezko Mailan.

Burgosen lortu zuten igoera, joan zen asteburuan. Bidezabaleko zortzi atletek euren probak irabazi zituzten. Miren de Regil galdakoztarraren pertika-jauzia jardunaldiko onena izateaz gainera, bere ibilbideko garaiena izan zen. Urtebete inguru 3,70 metrotan kateaturik zegoen, eta Burgosen 3,90 gainditzea lortu zuen.

### Ramadana ez da oztopo

Bidezabaleko Kaoutar Boulaid-en lana ere azpimarratzekoa da. Torrelavegan bizi den marokoarrak 3.000 metroko proba irabazi zuen, Ramadanaren ondorioz goizaldetik ezer jan edo edan barik zegoen arren. "Azken ehun metroetan asko sufritu zuen. Ez zela helduko uste genuen", gogoratu du atletismo taldeko Cristina Petitek.

Natalia Redondo, Leticia Gil, Judith Otazua, Patricia Urquia, Cristina Teixeira eta Leire Gorritxategi ere onenak izan ziren nor bere espezialitatean.

### 14 urtegaz onenen artean

Julene Bouzo ermuarrak harri eta zur utzi zituen guztiak. 14 urtegaz lehenengo txapelketa zuen atleta federatu moduan, eta bosgarren amaitu zuen altuera-jauzian. "Batu zituen puntuak garrantzitsuak izan ziren guretzat", dio Petitek.

# Vulcanoko jokalariek Milanen jokatuko dute

## Entrenatzailea italiarra da eta haren bitartez doaz

**> FUTBOLA** J. D.

Otxandioko Vulcano futbol taldean dabiltzan edo aritu diren 14 lagunek Milanen emango dute asteburua. Taldeko entrenatzailea, Alessandro Ruta, italiarra da eta haren bitartez antolatu dute bidaia.

Gaur Milan eta Inter de Milan taldeek jokatzen duten futbol-zelaira bisita gidatua egingo dute, eta bihar Milaneko futbol 7ko talde baten kontra jokatuko dute. "Hemen egindako kopa bat eramango dugu partidua irabazten duenari emateko", adierazi du Vulcanoko jokalari Javi Axpek. "Ilusioa" egiten dien bidaia dela dio eta unea bizitzeko "desiatzen" dagoela. "Vulcanoren ekipazioa eramango dugu. Familia argazki bategaz Otxandioko futbol taldeak Italian jokatutako unea hilezkortu gura dugu".

> Javi Axpe: "Hemen egindako kopa bat daramagu partidua irabazten duenari emateko"



Aurten Vulcanon aritu diren jokalarien familia argazkia.

# Aldape eta Bengoetxea txapelaren bila, bihar

## Peter-en oroimenezko pilota finala jokatuko dute

**> PILOTA** J.D.

Zapatuan Peter-en oroimenezko pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte Durangoko Ezkurdi Jai-Alai frontoian. A mailako binakako finalean Durangaldeko ordezkari bi elkarren kontra arituko dira. Aldape mallabitarrak Lopez Alday ortuellarragaz osatuko du bikotea eta Bengoetxea durangarrak Beitia Usansoloarragaz. Aurretik B mailako finala jokatuko da.

Jaialdia 16:30ean hasiko da umeen eskola txapelketako buruz buruko finalekin. Umetxoetako finalak hauek dira: Bingen Urien-Enaitz Uribe eta Unai Barrenetxea-Liher Nogueiras. Umeetan Gorka Sagarna-Martxel Iria eta Ekain Etxebarria-Urko Bullon dira finalak.




Gazteen partiduak jokatuko dituzte lehenengo, eta nagusienak ondoren.

# Mendi proba eta martxa Rio de Ororen alde

## Sekulebedarrak antolatuko du, lehenengoz

**> KORRIKA** J.D.

Abadiñoko Sekulebedarra kirol klubak Yalah-Yalah I. Mendi Lasterketa-Martxa antolatuko du ekainaren 25eko domekan, Durangon. Proba berria elkartasunagaz lotu gura izan dute. Horrela, batzen duten dirua Rio de Oro elkarteari emango diote.

Durangaldeko elkarte honek hainbat proiektu ditu martxan. Esaterako, udan aniztasun funtzionala duten ume saharrarrak ekartzen ditu eskualdera.

Parte-hartzea ahalik eta gehien zabaltzeko, martxa eta lasterketa antolatuko dituzte. Tabirako eliza ondotik abiatuko dira: martxa, 09:00etan, eta mendi lasterketa, 10:00etan.

13 kilometroko ibilbidean zehar asfaltoan, pistetan zein mendi bideetan ibiliko dira. Mañarian Kurutze Santurako bidea hartuko dute, eta handik Durangora itzuliko dira.

Izen-ematea 10 euro da *www.sekulebedarra.com* webgunean. Egunean bertan ere apuntatu daiteke, 15 euroren truke. Parte-hatzaile denek kamiseta bana jasoko dute, eta probako jan-edana eta luntxa ere prezioaren barruan daude.

### Spinning eta zunba

Rio de Oro elkartearen aldeko beste ekintza bat ere badago asteburu honetan, Durango Kirolak-ek antolatuta. Zapatuan spinning maratoia egingo dute Landako IIan. Prezioa 3 eurokoa izango da. Zozketak izango dira: bina bonu multijarduerarako, hilabeteko fitnesserako eta aquabikerako.

Ekainaren 25eko zunbathon solidarioan batutakoa Gurutze Gorrira bideratuko dute. Landako Iean garatuko da, 10:30etik 13:30era. Prezioa 5 eurokoa izango da.

# Gimnasia erritmikoko saioa Zaldibarren

**> GIMNASIA ERRITMIKOA** J. D.

Olazarmendi klubak gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo du domekan, 12:00etan, Olazar pilotalekuan. Klubeko gazteez gain, beste herri batzuetakoak ere batuko dira, Getxoko Sakonetakoak, esaterako. Guztira, 5 eta 17 urte arteko 45 bat gazte arituko dira.

# Herri arteko gazteen finalak Zaldibarren

**> PILOTA** J. D.

Gaur, 18:30ean, gazte mailako Bizkaiko herri arteko finalak jokatuko dituzte Olazarren. Zaldibar heldu da finalera. Kimuetan Andoni Hernandezek eta Iskander Agirrebeitiak jokatuko dute, eta gazteetan Igor Pascualek eta Faben Ituartek.



Abadiñon era jasangarrian doazen ume kopurua zenbatu dute xurgatzaileagaz.



Autoz egindako bidaiak abakotik aparte sailkatu dituzte Abadiñon.

# Oinez ibiltzea, umeak eskolara joateko modurik naturalena

## Abadiñoko eta Iurretako umeek oinez eta taldean egin dute eskolarako bidea

**> DURANGALDEA**

